






ROMI BIDEAN: EMAKUME EZBERDINEN ARTEKO ELKARBIZITZAREN EREDUA

Kaioa CORBELLA

Ale honetan ere...

-  IRITZIA: MAV, berdintasuna arte sisteman
-  Elkarrizketa Teresa del Valleri, Emakunde saria 2010
-  «Emakumeak aurrera» lelopean burutu du Emakundek martxoaren 8ko kanpaina



MAV, berdintasuna arte sisteman

Urte eta erdi igaro da sortu zenetik eta Emakumeak Arte Bisualetan (MAV Mujeres en las Artes visuales) elkarteak 230 lagunetik gora bildu ditu bere baitan: arte bisualaren sektoreko emakumeen elkarte profesionala izanik, Estatu espainoleko artista, bildumagile, kritikoa, komisario, galerista, gestore eta ikerlariak gara MAVeko kideak eta arte garaikidearen lan sisteman berdintasun eraginkorra galarazten duen diskriminazio sexistarekin amaitu nahi dugu.

Emakume eta kulturaren inguruan berriki sortutako beste elkarteak bezala, hala nola, zinema eta ikus-entzunezko CIMA eta Literatura eta kulturako Clásicas y Modernas (aurretik arkitekturako “La mujer construye” elkarte zegoen), MAV Berdintasuneko Lege Organikoaren babesean sortu da (2007), Erkidego Autonomoen arategietan ere garatua. Lege honek soilik kultur arlorako eskaintako 26. Artikulua jasotzen du eta aldarrikatzen du Estatuko administrazio eta erakunde guztiek aukera berdintasuna sustatzearen derrigorrezkotasuna, ekintza positiboak aplikatzearekin bada ere, gizarte zuzenagoa lortzeko. Lege honetan parekidetasunaren helburua ezartzen da parte hartzearen %40a eta %60aren artean. Hala eta guztiz ere, MAVen ez dugu kuoten aplikazio xehea bakarrik defendatzen, arte bisualetako bikaintasun profesionaletik at, jakin badakigulako gaur egun Estatu espainolean behar adina profesional emakume daudela behar bezala kualifikatuak parekidetasuna erreala izan dadin arte bisualetako edozein lan eremuan, bai eta erabaki organoetan ere, bikaintasuna kaltetu gabe.

MAVen jarduera ardatz bat Behategia da. Behategi honen bitartez datuak eta zenbakiak aztertzen eta zabaltzen ditu, bai eta onartezinak diren diskriminazio kasuak salatu ere.

Gure web orrian Txostenak aldizka argitaratzen dira eta horietan ikus daitekeenez, hirurogeiko hamarkadatik aurrera emakumeen formazioa arte ikasketetan %50koa zen, gradualki ia %70era iritsiz gaur egun. Alta, ehuneko hauek inbertitu egiten dira sartzeko eta praktika profesionalean. Gaur, iraganeko hamarkadetan bezala, Estatu espainoleko emakume gehienak arte sistematik kanpo edo horren menpean daude. Adibidez, artisten kasua: Arte Ederretako emakume lizentziatuak laurogeita hamarrekota hamarkada geroztik %60a baino gehiago badira ere, %30ak bakarrik lortzen dituzte laguntzak, bekak eta sariak, profesionalizatzeko garaian lan munduan sartzeko erabakigarriak izan daitezkeenak. Lehen behaketa hau azal dezakeen elementu bat sari horiek ematen dituzten epaimahaien osaketa da, desberdintasunak gidatuak direnak, eta hiru emakume eta zazpi gizoneko proportzioa izaten dutenak. Gainera, artisten %16 eta %20 bitartean lortzen du arte merkatuan sartzeko galerien bitartez. Baina ARCO -maila altueneko erreferentzia-Nazioarteko feriarri erreparatzen badiogu, portzentajea %7koa da. Berez, artisten produktzioa arategi ikusezin baten menpe dago: ikusgaitasunik eza eta gutxiespen ekonomikoa eta sinbolikoa dira ohikoak. Azken hamarkadan bakarrik %9ak lortu zituen bakarkako erakusketak museo eta arte zentroetan. Eta ehunekoak



Arts Attack-eko 25 artista bisualen erakusketa Donostiako Arteko Galerian.

arian jaisten dira bilduma publikoetan artista eta obren kopuruari begiratzen badiogu, hain zuzen, %5eko ingurukoa izanik. Honek azaltzen du emakume artisten errekonozimendu eskasa prestigio handiena duten sariei dagokienez: oraindik ez da izan Velazquez Saria edo Asturiaseko Printzearen Saria lortu duen Espainiako emakume artistarik. Alta, museoetako organigramei erreparatzen badiegu, langileen %90 inguru emakumeak dira, zentro hauetako zuzendaritza guztiz gizonen esku izanik. Emakumeek artearen gestioari eusten diogu eta ikusle gehienak emakumeak gara, baina profil guztiz maskulinoa duten erabaki taldeen produkzioa eta irizpideak ontzat hartu behar ditugu.

MAVen beste oinarrizko jarduera ardatz bat Dokumentazio Zentroa da. Honen bitartez, emakumeek arte sistemara ekarri dioten guztiaren artxibategia osatzen ari gara. Ikerketarako eta artearen teoria eta praktikarako lan tresnak eskaintzen ditugu, ikuspegi feministatik eta genero ikuspegitik. Espero dugunez, azken hamarkadetan egindako ikerketen lokailua izango da, une honetan ikerketa horiek eskuratzea zaila delako eta sakabanatuta daudelako. Gainera, eztabaida teorikoa ezinbestekoa da negoziazio politikoan akatsik ez egiteko.

PRAKTIKA ONEN DOKUMENTUA

Elkartearen esperientziaren lehen urte eta erdi honetan MAVek bere ahotsa hedatzea eta bere helburuak jasotzea lortu du arte bisualetako sektoreko elkarten artean. Artista Bisualen Elkarten Batasuna UAAV (Unión de Asociaciones de Artistas Visuales), Arte Garaikideko Institutua IAC (Instituto de Arte Contemporáneo), galerien Partzuergoa, kritikari eta komisarioen elkarte ADACE (Asociación de Directores de Arte Contemporáneo) bezalako taldeekin batera, gutunak eta komunikatuak sinatu ditugu “Praktika Onen Dokumentua” aplikatzea defen-



Gaur, iraganeko hamarkadetan bezala, Estatu espainoleko emakume gehienak arte sistematik kanpoan edo horren menpean daude.

datzeko. Honek aldarrikatzen du museoetako zuzendaritza karguak lehia-keta publikoen bitartez izendatzearen beharra, hautaketak beti emakumeen kaltetan direlako. Era berean, “Medidas en defensa del arte español” (Arte espainola defendatzeko neurriak) izeneko dokumentua idazten lagundu dugu. Bertan “berdintasunari” buruzko atal berezia dago, arte sistemako profesional guztiek adosten dugun bikaintasun helburua lortzeko ezinbestekoa dena.

Bi eremutan lan egin dugu MAVen. Alde batetik, sektoreko beste elkarte batzuekin, eta bestetik, emakumea eta kulturako elkarteekin. Azken hauekin Espainiako Defensor del Pueblo-ri beronek onartu zuen kexa bat aurkeztu genion. Halaber, ekimen propioak ere izan ditugu. Gauzak horrela, MAV Estatuko Administrazioarekiko negoziatioetan hizketakide bihurtu da (Kultur Ministerioa, AECID, etab.) bai eta Autonomi Erkidegoetan ere. Kultur gaitako kompetentziak Autonomi Erkidegoei transferitzeak ere MAVen ekintza konprometitzen du lurralde eta herri mailetan ekimenak sendotzeko. Adibidez, 2010eko martxoan “Mujeres en el sistema del arte” (Emakumeak arte sisteman) deritzon lehen ekitaldia antolatu genuen arte sistemaren katea lau mahaian aztertzeko: produkzioa,

gestioa, distribuzioa eta difusioa. Hor-tik aurrera, ikusgaitasuna lortzeko eta kontaktuak egiteko planari ekin diogu administrazio eta herri erakundeen agente eta arduradunekin eztabaida mahaiak antolatuz, hala nola, Gasteizen (Amarica Aretoa), Donostian (Arteko galeria), Bartzelonan (Fundació Tàpies), eta Sevillan (CAAC). Gure asmoa da ekitaldi hauekin Estatu osoan jarraitzea, Unibertsitateetan batez ere, emakume gazteek etorkizunean jasan beharko duten diskriminazio sexista ezagutu dezaten eta gure gizartearen transformazio parekidearekin konpromisoa hartu dezaten.

Gaur egun MAVen barruan gauden profesionalak orainaldian aldaketa nabarmenak lortzeko lan egiten ari gara. MAVen aburuz premiazkoa da emakumeek arteari eman dizkioten ekarpen erabakigarriak ikusgai izatea eta gerorako ez uztea: 2010ean MAV Sarien lehen edizioa ospatu genuen, ibilbide profesionala saritzeko. Orduan Eva Lootz artistak eta Berta Sichel komisarioak jaso zituzten sariak. MAVek, bere web orritik eta ekimen askoren bitartez, ikusgaitasuna eta lankidetzaren sarea eskaintzen ditu eta hauek bere bazkideen arteko sinergien bidez ugaltzea espero dugu.

[www.mav.org.es]



«Unibertsitateak berdintasunerako zenbat eta konpromiso handiago hartu orduan eta berritzaileagoa izango da»

EHUko irakasle emeritu izateak aukera eman dio ikerketa antropologikoari, haren pasioetako bati, arreta handiago eskaintzeko. Emakunde Saria jasotzearen berria “gutziz harrিতuta eta alaitasunez” hartu du. Euskal gizartea errekonozimendu zalea ez dela dio eta horregatik hain zuzen, eta EHUko Berdintasunerako Batzordearen proposamena izan delako, are eta ilusio handiagoa egiten dio. Berari zor zaio Giza Antropologia euskal mundu akademikoan sartu izana, Emakumearen inguruko Ikasketen Mintegia sortzea eta 1985an “Mujer vasca. Imagen y realidad” argitaratzea. Liburu hori Del Vallek zuzendu zuen lan talde baten emaitza izan zen eta egun antropologia feministaren alorrean erreferentzia da.

TESTUA: CARMEN RUIZ DE GARIBAY; ARGAZKIAK: KARLOS CORBELLA

Emakunde Sariak ekarri dion hasierako harridura eta poza alde batera utzita, Teresa del Valle harrিতuta dago berriaren hedapen handiarekin: “Gizartearen alor askotara iritsi da eta hori baikorra dela deritzot zeren errekonozimenduarekin batera berdintasunarekin zerikusia duen lan baten presentzia dago. Gizartearen alor horien bitartez berdintasunari buruz hausnarketa egon bazegoela egiaztatut dut”.

Emakume gazte bat Estatu Batuetako unibertsitate batera ikastera joatea ez zen ohikoa hirurogeigarren hamarkadan. Nola lortu zenuen?



21 urte nituela misioak direlakoetan lan egin nahi nuen. Txikitari Berrizeko Mertzenario Misiolarien kongregazioan ikasi nuen nik, hasiera batean Bilboko Veracruz ikastetxean eta horren ondoren Berrizeko barnetegian. Kongregazio horretan sartu eta Estatu Batuetara bidali ninduten ikastera. Saint Louis-eko Unibertsitatean Arte eta Historia amaitu ondoren Guam-eko Unibertsitate publikora irakasle joan nintzen. Hasieran Estatu Batuetako Historia zen nire irakasgaia baina Mikronesiaren Historiarekin zerikusia zuen ikasketa esparru bat garatzen joan nintzen, garai horretan esparru berritzailea zena. Hori izan zen beste kulturetan murgildu nintzen lehenbiziko aldia.

Eta hor hasi zitzaizun Antropologiarako grina?

0Bai, horrela hasi nintzen beste mundu batzuk ezagutzen. Hawaiko Unibertsitatean antropologiari buruzko masterra eta doktoregoa egin nuen gobernu beka bati esker. Azken hori gobernu estatubatuarren erakunde batek ematen zuen: East West Centerrek. Aurrerago landa lana Guam irlaren hegoaldean gauzatu nuen eta tesiak aztertzen zituen lur jabegora iristeko estrategiak, eta jendeak lur jabego hori kontserbatzeko egiten zituen ahaleginak. Murgiltze osoa izan zen, Imatac jende guneko familia batekin bizi nintzelako eta horiek herri guztiko jendearen senideak ziren: sareen ehunaren inguruko eskarmentu sakona. Bestalde, Hawaiko esperientziak garrantzia handia izan zuen niretzat 30 herrialdeetako lagunekin bizi izan nintzelako. Estatu Batuak, Pazifikoa eta Asiako hego-mendebaldea. Emakumeen nazioarteko talde bat sortu genuen eta bilera egiten genituen kultura ezberdinak eta gure sozializazioa emakume moduan mintzagai genuela. Bertan ere feminismoarekin harremanetan jarri eta oinarritzko irakurketak egin nituen.

Urruneko lurraldetan esperientzi horren ondoren Euskal Herrira itzultzea erabaki zenuen.

Testuinguru berri horretan kongregazioa uztea erabaki nuen, ez nekien ziur hemen geratu behar nintzen ala ez. 1979an EHU sartu nintzen, Gipuzkoako kanpusean, Zorroagako Fakultatearen bigarren urtean. Kontratatu ninduten eta hantxe bertan egon nahi nuela sentitu nuen, baina aldi berean, akademiko moduan, Estatu Batuetako harremanak mantendu nahi nituela argi neukan, eta halaxe izan da era iraunkor batean.

Dena egitear zegoela aurkitu zenuen?

Fakultate berria zen, bertan leku ezberdinetako jendea baitaraututa geunden, ikusmolde zabal, progresista eta lan egiteko gogo handiz geunden. Proiektu berri bati hasiera eman genion eta giza antropologia sartzen hasi zen EHU. Diziplina hori, nahiz eta



«Zure mentorea denak, botere eta prestigio esparruetara iristeko giltza duena dela uste dut»

Barandiaranek sortutako tradizioa egon, ez zuen presentziarik EHUen. Izan genuen lotura garrantzizkoa zen, batez ere EHUko Emakumeari buruzko Ikasketen Mintegiko emakumeek izan genuena. Estatu mailan sortzen zen laugarrena zen, eta horrek ekarri zuen, mundu anglosaxoian eta unibertsitate frantziarretan, ondo errotuta zeuden planteamenduak, “Emakumearen inguruko Ikasketak” unibertsitate mailan onartuak izatea. Hemen gogoeta feminista mugimendu feministarekin lotura zeukaten testuinguruetan egina zegoen baina ez zegoen halakorik ez irakaskuntzan ez ikerkuntza akademikoan.

“Mujer vasca. Imagen y realidad” liburua gogoeta horren ondorioz sortu zen?

Hiru urtetan beka bat izan genuen, Eusko Ikaskuntzak etnografiarako ematen zuen lehenbizikoa. Horri esker 1985an “Mujer vasca, imagen y realidad” liburua argitaratu genuen. Lan hori mugarriztat jotzen da, erreferente bat da, bertan emakumeok geure burua nola ikusten genuen oso era zabal batean islatu genuelako, kostako, herri eta hirietako testuinguru kontuan hartuz. Eta baita, erabili genuen metodologia berritzailegatik, giza antropologiarri dagokiona. Aurreko antropologia ikerketa deskriptiboetan emakumea nola izan zen ikusita kritika egin eta jaso genuen. Gehien bat euskal inguruko emakumeen boterea idealizatua zegoen, eta ez zen bat etortzen elkarrizketatutako emakumeek kontatzen zuten bizipenekin.

Zenbat lagun inplikatu ziren proiektuan?

Liburuaren autoretzaren ikerketa taldeko partaideak bederatzik emakume eta gizon bat ginen. Baina berrogeita hamar pertsona inguruk parte hartu zuten. Lan trinkoa eta oso kontrastatua izan zen, beka batek suposatzen duenaz gaindi. Baina esan beharra daukat, bestaldetik, lana serioa bazen ere, testuinguruak ez zuela lana goraiatzeko. Bultzagarri modukoa zen; errealitateari buruz hausnarketa egiten zuen eta horren gabeziak aurkitzen zituen, eta konstatatu ordez, kolokan jartzen zuen emakumearen botereari buruz ideologia bat zena. Garai horretan ere mugimendu feminista oso bizirik zegoen eta aukera izan genuen zenbait forotan parte hartzeko, betiere, egiten ari ginenaz mintzatzeko eta era eragilean esku hartzeko.

Hala ere, arrakasta izanda ere, Mintegia desagertu zen.

Bai, eta horrek beste elkarrizketa bat beharko luke. Baina kontua da aktiborik egon zen bitartean garrantzi handia izan zuela. Ikerketarako fondoa eratu, eta antropologia, historia, filosofia edo psikologia feministan tesia egin nahi zutenentzat, urtean behineko beka bat sortu zen. Mintegiak antolatzen ziren eta oso leku aktiboa zen, erreferente bat estatu mailan, eta kanpoko jendea etortzen zitzaigun. Izan ere, Estatu Batuetako Shally Hacker soziologoaren ondarearekin handitu zen liburutegia. Jende askori prestakuntza eman zitzaion eta ikuspuntu feministarekin zerikusia zuten irakasgaiak ikasketa planetan sartzeko aukera izan genuen geroxeago. Mintegiaren liburutegia Hezkuntza eta Filosofiako “Maite Recarte” gelan dago, Fakultateko dekanoa eta Mintegiko partaidea izan zen horri omenaldi moduan. Eta Gipuzkoako kanpus berriko liburutegian egongo da.

Iaz emakumeak unibertsitatean sartzearen mendeurrena bete zen baina arlo horretan berdintasuna lortzeko zer falta da?

Galdetu egin behar da edozein arlo eta estamentutako emakumearen sartzeara zein puntutaraino joan al den paraleloki haren balioaren errekonozimendurekin batera. Estatistikak ez ditut eskura baina ardura duten postuetan egoten diren emakume eta gizonen buruzko ikerketak egin dira, departamentuetatik hasita, dekanotza, errektoregoa eta katedrak barne eta baita sari eta errekonozimenduak aztertuz eta hor alde handia agertzen da. Boterearen gaia asko landu dut, kritika feministatik batez ere eta hasiera ematen dizunak, zure mentorea denak, botere eta prestigio esparruetara iristeko giltza duena dela uste dut. Zure mentore izateak ez du zerikusirik faboritismo edo konpaikeiarekin baizik eta pertsonen irakasteko, jakintzan aurreratzeko errekonozimendurekin. Eragina du arauturik ez dauden eremuetan emakumeak sartzeko garaian. Oposaketa bat arauturik dago baina ez dago arauturik ikerketa proiektuak ebaluatuko duen batzorde bateko partaidea izateko proposamena egin diezazuten. Horregatik garrantzi handia ematen diet bide demokratikoei. Esaterako, errektore bat aukeratzeko hautaketa. Emakume bat momentu horretan egon dadin, oztopo asko gaintututa izan behar du jadanik eta

errekonozimendurekin zerikusia duten laguntza jasota izan behar du zeren pertsonak haien balioetatik proposatzen direla uste dut baina baita ere zailagoa dela emakumeena onartzea gizonena baino.

Emakumeak botere eta prestigioa sortzen dituzten esparruetara iristea denbora kontua da?

Denbora baino gehiago da. Hasiera puntua defizitarioa da, zaila izaten da berdintzea, borondaterik eta hitzartzen diren medioak ez dauden bitartean. Horregatik kuota sistemen alde nago, hasierako puntua horrela irauten den bitartean. Borondatearen adibideak daude: Unibertsitatean berdintasun sailak eta batzordeak sortu dira, betiere, genero ekitaterako legeak indarrean jar daitezten. Unibertsitatean, oro har, diziplina arteko apurkako gogoeta bat ematen ari da nagusiki emakume eta gizonen arteko ezberdintasun sistematik nola egituratzen diren jakiteko. EHUko berdintasunerako batzordeak norabide horretan lanean diharduela uste dut. Unibertsitateak berdintasunerako konpromisoa gero eta handiagoa izan, orduan eta errentagarritasun handiagoa lortuko du, berritzaileagoa izango delako, berritzaileak errekonozimendu hain handia duen momentu honetan, hain zuzen. Gizartean berritzaile bat dago: gizarte malguago, maila guztietan atazan elkar trukatzearrekin konpromiso handiagoa duen gizarte bat sortze aldera.

Hor borondatea dago baina ezberdintasun egoera handia duzunean, esaterako, emakume eta gizon katedradunen arteko kopuruan, eta katedra horiek jakintza eta eskola sortzeko zein tesiak zuzentzeko suposatzen duten horretan, hori ezin da zoriaren mende, berezko dinamikaren eskuetan utzi. Gogoeta bat egin behar da: ebaluazio positiboa lortzea edo prestigio handiko argitalpenetan sartzea edota erredakzio batzordean egotea zergatik da hain zaila emakumeentzat? Ez da prestakuntza gutxikoak direlako baizik eta askotan hori maila informaletan erabakitzen delako, zu ez zauden sare informaletan. Emakume kontzientziadunen presentziak garrantzi handia du. Emakume bat egoteak ez du berdintasuna bermatzen gizon bat egoteak baino gehiago. Ezberdintasun egoera batean gaudela eta zibilizatuak diren bide guztien bitartez berdintasuna bultzatu egin behar delako kontzientzia izan behar du.



Juncal Dual, Mónica Guitera eta Silvana Jiménez.

ROMI BIDEAN: Emakume ezberdinen arteko elkarbizitzaren eredua

Ijitoak eta ijito ez diren emakumeak elkarrekin ari dira Romi Bidean deritzon elkarteetan, oztopoak eta estereotipoak ezabatzeko helburuarekin. Elkartearen egoitza Donostiako Intxaurren auzoan dago eta bertan elkartzen dira Donostia, Hernani, Andoain, Irun, Errenteria eta Zumarragatik datozen 35 bazkideak. Han sortzen dira proiektuak, gehienak, prestakuntzarako eta lan mundurako emakumeen sarbidea errazteko. TESTUA: CARMEN RUIZ DE GARIBAY; ARGAZKIAK: KARLOS CORBELLA

Elkarateak aukeratutako izena bi hizkuntza eta bi herrien arteko elkarbizitzaren sinboloa da. Izan ere, calo hizkuntzaz *romi* "emakumeak" esan nahi du, eta hortik dator *Romi Bidean*.

"Elkartea emakume ijitoek gure espazioa aldarrikatzeko beharretik sortu da" dio Silvana Jimenezek frantses kutsu batekin. Silvana Baionan sortu eta hazi zen, bere gurasoak, ijito etniakoak, hara joan zirelako etorkizun bila. Duela zortzi urte Hernanin bizi da. Ijitoa ere den Angelekin ezkontuta, bi seme eta alaba bat ditu eta Caritasen lan egiten du. Diharduen programa arrisku edo babesik gabeko goieran dauden adin txikikoen ijito fami-

liei arreta emateko eratu zen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Haurtzaro, Nerabezaro eta Gazteria Zerbitzuaren hitzarmenarekin. Gainera, eskola graduatua eskuratze-ko prestatzen ari da eta egunen batean psikologia ikastea gustatuko litzaiokeela esaten du.

Mónica Guitera Caritaseko gizarte langilea da duela bederatzita urte eta ez da ijitoa. Bere esanetan "ezjakintasunak beldur absurdoak sortzen ditu eta kalte handia egiten die bai ijito herriari bai ijitoa ez den herriari ere". Berak bizi izan zuen aurreiritziak hausteko prozesu hau eta onartzen duenez, gerturatzeko lehen pausoak ematen dituzunean "harrizten

zara nola, funtsean, uste dugun baino berdinagoak garen eta emakumeek arazo berdintsuak ditugun".

Elkartea abiatzea ez zen erraza izan. 2003an Euskal Herrian Ijito Herriaren Sustapen Integrala eta Parte Hartze Soziale-rako Kontseilua sortu zen ijitoen nahiak eta eskaerak jasotzeko helburuaz. Urtebete geroago, Lehen Plana onartu zen Eusko Jaurlaritzako zenbait sail, zuzendaritza eta erakunderen lankidetzarekin. Horien artean Emakunde, foru aldundiak, udalak, mankomunitateak eta ijitoen komunitatearekin loturiko erakundeak zeuden. Caritasen lan egiten zuten emakume ijitoek beren nahi eta eskaera bereziak jasota

geratzea nahi zuten eta horregatik erabaki zuten, azkenik, 2008an eratu zuten elkarte hau osatzea. Orain, Kontseiluan parte har dezakete abian jarri den Bigarren Planari begira eta duela urte eta erdi alokatutako egoitza ezin hobeki dabil. Bazkide guztiak jabetzen dira emakume ijitoen bizitza hobetzeko prestakuntzak, gizarteratzeak eta lan munduan sartzeak duen garrantziaz. Horregatik, sustatzen dituzten jarduera gehienak arlo horietan fokatzen dira.

Juncal Dualek badaki, esperientzia pertsonalagatik, ikasketarik ez izateak atekak izten dituela. 15 urte zituela eskola utzi zuen eta orain prestakuntza prozesuan dabil eskola graduatua lortzeko, baina bere seme nerabeak Institutuan ikastea lortu du. Bera Zumarragako emakumeen taldekoa da neskatila zenetik. "Orain langabezian nago eta Donostiara joaten naiz ostegunero Romi Bidean taldearen bileretara. Emakume ijito banandu bat naiz, hiru alaba eta seme bat ditut. Elkarteko jardueraren bat dudak baikoitzean nire amarekin geratzen dira. Asko laguntzen dit eta bera ere Zumarragako taldekoa da. Bertan autoestimu eta antzerki tailerrak, bai eta joskintza eta sukaldaritza ikastaroak ere egin ditugu. Orain emakume ijitoek egindako errezeta liburu bat argitaratu nahi dugu".

Romi Bidean sustatutako jarduerekin jarraituz, Silvanak esaten duenez, espazio honek emakume ijitoak motibatzen balio du. "Etxekoandre, ama, eta familia zaindari eginkizunetik ateratzera bultzatzen ditu; eta erakusten die beste aukerak badirela, horien artean hauta dezaten, behintzat. Pentsamoldeak zabaltzeko eta pentsarazteko ere balio du". Hiru gogoratzen dute nola egindako lehenetarikoa bilera batean adinekoentzako alfabetatze ikastaroen beharra planteatu zela. Ikastaro horretan lau emakumek eman dute izena. Asteazken orduz gogoz ari dira irakurtzen eta idazten ikasten. Era berean, eta emakumeek hala eskatuta, sukaldaritza tailerra eskaini zuten eta bertan elikadura osasuntsua, orekatua eta ekonomikoarekin loturiko gaiak aztertu ziren.

Oso harrera ona izan duen beste jardueretako bat eskolatzeko zailtasunak dituzten haurrei eskaintzen dieten laguntza izan da. "Bi talde daude" azaltzen du Monicak. "Bata egoitzan bertan dago, 7tik 12 urte bitarteko ijito neska-mutilentzako, irakasle boluntarioekin, eta bestea, mistoa da (ijitoak eta ijitoak ez direnak) Intxaurrendoko Ikastolan ematen dena".

Emakume ijitoen zereginari buruzko hiru jardunaldi antolatuta dituzte Donostian eta bat Zumarragan. Halaber, kulturen arteko tailerrak antolatzen dituzte ikastetxeetan eta horiekin ijitoen kultura jakitera ematen dute bere egunerokotasunean. Bestalde,

«ALFABETATZE MAILAK ETXKO GIROAREKIN ZERIKUSI HANDIA DU, HORREGATIK DA HAIN GARRANTZITSUA AMEN ZEREGINA»



edozein arrazoiengatik eskola utzi duten nerabeekin topaketak antolatzen dituzte beren bizitzak prestakuntzara bideratzeko asmoz. "Orokorrean neska ijitoek ez dute bigarren hezkuntza amaitzen eta hamabi edo hamahiru urte dituztela gehiago ikasi nahi ez dutela hasten dira esaten" dio Juncal. "Noski, honek etxeko giroarekin zerikusia handia du. Horregatik da hain garrantzitsua amen zeregina". "Diferentzia handia dago gure amen belaunaldiaren eta gurearen artean" gehitzen du Silvanak. "Lehen, eskola-

tzea eta hezkuntza ez ziren beharrezkotzat jotzen. Baina oraindik ere, badira berehalakoak diren gauzei lehentasuna ematen dieten familiak, adibidez, mutilek txatarra negozioan edo merkatu txikian laguntzea eta neskek amari etxean laguntzea eta ijito komunitateak begi onekin ikustea helburu dutenak. Hala eta guztiz ere, familia aurrera eramaten duen eta hezkuntzaren garrantzia azpimarratzen duen emakume bat baldin badago, aurrerapauso handiak eman ditzakegu".

IJITO HERRIAREN SUSTAPEN INTEGRALA ETA PARTE HARTZE SOZIALERAKO KONTSEILUAN DAUDEN EMAKUMEEN ELKARTEAK:

- "Amuge" Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarte. Egoitza Bilbon du asociacionamuge@yahoo.es
- "Chanelamos Adikerar" Euskal Herriko Emakume Ijitoen Elkarte, egoitza Bilbon du. gitanasvascas@yahoo.es
- "Sim Romi", egoitza Bilbon du. sim.romi@yahoo.es
- "Romí Bidean", egoitza Donostian du. romibidean@live.com

BESTE EMAKUME IJITOEK TALDE EGONKOR, BATZUK EMAKUME ELKARTE BEZALA ERATUAK, BESTEAK ERATZEKO PROZESUAN DIRENAK, ETA BESTE BATZUK ORAINGOZ ERATZEKO ASMORIK EZ DUTENAK:

- "I-Romí" emakume ijito eta ijito ez diren emakumeen elkarte, egoitza Irunen du. programagitanoirun@caritasgi.org
- "Kalé dor Kayikó" Elkartearen Emakumearen Saila, egoitza nagusia Bilbon du. romi@kaledorkayiko.org
- "Gao Lacho Drom" Ijitoen Elkarteko emakumeen taldea, egoitza Gasteizen du. rosa@gaolacho.com
- Fundación Secretariado Gitano "Romí Sineló" fundazioaren emakume ijitoen taldea, egoitza Sestaon du. fsgsestao@gitanos.org
- "Gazteleku" Elkartearen emakumeen taldea, egoitza Bilbon du. kaligune@gazteleku.org
- "Flamenco del Norte" Kultur Elkarte, egoitza Irunen du. asociacionculturalflamencodelnorte@hotmail.com
- "A una sola voz" Emakumeen Elkarte, egoitza Bilbon du. 688814748



«EMAKUMEAK AURRERA» LELOPEAN BURUTU DU EMAKUNDEK MARTXOAREN 8KO KANPAINA

Emakumeen Nazioarteko Egunerako, Martxoak 8rako, Emakunde prestatu duen sentsibilizazio kanpainak "Emakumeak aurrera" leloa izan du eta emakumeak gure gizartearen erabagiguneetan egoteko behar dago oinarrituta. Leloa "Emakumeak aurrera" da eta gogoratzen du gizarte honetako emakume gehiago behar dituela udal, aldundi, gobernu, unibertsitate, enpresa eta sindikatuak erabagiguneetan.

Emakunderen iritzi, gizarteak aurrera pausu handiak eman ditu azken hamarkadetan berdintasunaren eremuan, baina, hala eta guztiz ere, datuek erakusten digute oraindik ezberdintasun handiak daudela emakume eta gizonen artean boterea, eskubideak errekurtsioak eta onurak kontrolatu eta eskuratzeko orduan.

Egoera hau aldatzeko beharrezkoa da gizartearen eremu guztietako (kultura, politika, ekonomia...) erabagiguneetara emakumeak heltzeko aukerak bultzatzea. Helburua gizartearen emakume eta gizonen harreman pertsonal eta botere harremanetan oreka handiagoa lortzea izan beharko litzateke. Eta eginkizun honetan, gizarte osoak lagundu behar du, emakumeak erabaki eta botere guneetara heltzeko bidean dituzten oztopoak desagerrarazten. Horretarako baloreen aldaketa guztiz beharrezkoa da.

Aurten Emakumeen Nazioarteko Eguneraren mendeurrena ospatzen da, gizonetako

erabateko berdintasunaren eta gizartearen esparru guztietan parte hartzeko borrokaren hasieraren mendeurrena, alegia. Geroztik, mugimendu feministak, emakumeen elkarteak eta botere publikoak egindako lanari esker, eta agente sozial askok eta, oro har, herritarrek apurka apurka egindako ekarpenei esker, aurrerapen esanguratsuak lortu dira gure gizartearen, emakume eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez.

UN WOMEN ERAKUNDEAREKIN LANKIDETZA BIDEAK AZTERTZEKO BILERA MICHELE BACHELETEKIN

Emakunde zuzendaria, María Silvestre, eta idazkari nagusia, Arantxa Elizondo, UN Women erakunde zuzendaria den Michele Bacheletekin bildu dira martxoaren 2an Nazio Batuen egoitzan bertan. Bileraren helburua bi erakundearen arteko lankidetzaren bideak aztertzea izan da, administrazioaren genero ikuspegia txertatzeko politikak gai nagusia izanik.

Bileran hau Nazio Batuek urtero antolatzen duten Emakumeen Egoerari buruzko Batzordearen bileraren testuinguruan burutu zen. Emakumeen eta nesken partehartzea, horien sarbidea hezkuntza, zientzia eta teknologian, eta emakumeen sarbidea lan egoki batera izan da 55. edizioaren gai nagusia.

María Silvestrek eta Arantxa Elizondok Emakunde administrazioaren genero ikuspegia txertatzeko martxan jarri dituzten tresnak azaldu dizkiote Bacheletei: Gobernuak onartzeko duen araudi guztiaren ebaluazioa, administrazioen berdintasun legea eta berdintasun planak betetzeari ebaluazioa, berdintasunaren inguruko datu eta estatistiken garapena, eta genero ikuspegiko aurrekontuak.



EGITURA ETA KOHESIO FONDOETAKO BERDINTASUN POLITIKEN SAREAREN BILERA

Egitura eta kohesio fondoetako Emakume eta Gizonen Berdintasun politikaren sarea otsailaren 17an eta 18an bildu zen Bilboko Euskalduna Jauregian. Bileran hain Emakumearen Institutuak, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak eta Lan eta Inmigrazio Ministerioak deitu zuten. Honen antolaketan Emakunde lagundu du eta baita Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasuneko Sailak eta Lana eta Gau Sozialetako Sailak.

Bileran honako gaiak hartu zituzten kontuan: Aukera Berdintasunerako Ebaluazio Estrategiko eta Tematikoa, Sarearen emaitzak aurrerapen nagusiak, kapazitate berdintasun gaian eta haren gauzagarritasuna Egitura Funtsetan eta Kohesio Funtsetan eta abar.

Euskal Autonomia Erkidegoko fondoekin lagundutako proiektuetan berdintasunaren irizpidea txertatzeko praktika onei buruzko mahai inguruak amaiera eman zion bilerari.

EMAKUNDEK GOGORATU DU EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO SOLDATA EZBERDINTASUNA ERAGITEN DITUEN FAKTOREAN

Otsailaren 22a, Emakume eta Gizonen soldata berdintasunaren aldeko Eguna dela eta, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeak gogoratu du soldata diskriminazioa dela gaur egun emakume eta gizonen arteko ezberdintasuna eragiten duen faktoreetako bat.

INERen "Encuesta de estructura salarial" delakoan jasotzen denez, Emakume eta gizonen arteko soldata diferentzia 7.139,50 eurokoa da (Emakumeak: 19.771,80/ Gizonetakoak: 26.911,40).

Sektoreak kontuan izanda, diferentzia handienak zerbitzu sektorean ematen dira, hain justu, emakume gehien duen sektorea. Erdi-beheko lanpostuetako soldata kontutan hartzen baditugu, gizonena 100 bada, emakumeena 67 eta 65 artekoa da. European, EBko herrialdeetan soldata diferentzia %17,4koa dela kalkulatzen da.

Aldizkariaren edizio digitalean, eduki gehiago: www.emakunde.euskadi.net/revista

• Genero justizia eta Milurteko Garapenerako Helburuei buruzko txostena. • Lehen orrian egotea merezi duten emakumeen soslaiak. • Enpresa pribatu edo herri erakundeek berdintasunaren alde burututako ekimenak. • Jarduera interesgarrien agenda. • Beste emakumeekin konektatzeko atala. • Iritzia emateko lekua.

Edizioa: Emakunde. Koordinazio teknikoa: Kazeta 5. Diseinua: Didart. Inprimatzailea: Gráficas Santa María. Lege Gordailua: VI 465-2010